

Aniztasun sozioekonomiko, kultural eta  
linguistikoaren trataera errazten duten dimentsio  
eraldatzaileak Ramon Bajo eskolako partaideen  
ahotsetatik

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Aldama Urkiza, Irati

ZUZENDARIA: Arguiñano Madrazo, Andoni



## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA.....</b>	<b>3</b>
Eskola segregazioa .....	4
Kulturarteko hezkuntza.....	6
Eskola inklusiboa.....	6
Hezkuntza berrikuntza.....	8
<b>3. LANAREN HELBURUAK.....</b>	<b>10</b>
<b>4. METODOLOGIA KOMUNIKATIBO KRITIKOA.....</b>	<b>10</b>
Informazioa jasotzeko teknikak .....	11
Datuak biltzeko teknika “focus group”.....	11
Talde eztabaida komunikatiboaren erregistroa .....	12
Talde eztabaida komunikatiboko parte-hartzaileak .....	12
Talde eztabaida komunikatiboa prestatzeko eta gauzatzeko gakoak ..	13
Informazioa aztertzeko teknikak.....	13
<b>5. EMAITZEN AZTERKETA.....</b>	<b>14</b>
<b>5. EMAITZEN EZTABAIDA.....</b>	<b>24</b>
<b>6. ONDORIOAK.....</b>	<b>26</b>
<b>7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....</b>	<b>28</b>
<b>8. ERANSKINAK.....</b>	<b>31</b>

**ANIZTASUN SOZIOEKONOMIKO, KULTURAL ETA LINGUISTIKOAREN  
TRATAERA ERRAZTEN DUTEN DIMENTSIO ERALDATZAILEAK  
RAMON BAJO ESKOLAKO PARTAIDEEN AHOTSETATIK**

**Irati Aldama Urkiza**

Globalizazioak ekarritako migrazio fluxuaren ondorioz, eskoletako errealitatea gero eta anitzagoa da. Horrela, aniztasunaren trataera gaurkotasun handiko gaia izanda, lan honen xedea aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistikoaren kudeaketan aurkitu daitezkeen dimentsio eraldatzaileak ezagutzea eta identifikatzea da. Helburua betetzeko, Ramon Bajo ikastetxean 2002-2003 ikasturtean eskola auzora irekitzeko burutu zen berrikuntza prozesua aztertu da, metodologia komunikatibo kritikoaren bitartez. Metodologia honek pertsonen arteko komunikazio eta elkarrekintzaren bidez, ezagutzaren eraikuntza soziala ahalbidetzen du. Aniztasunaren trataeran eskola familien elkargunea izateak, euskara hizkuntza kohesiorako tresna bilakatzea eta berrikuntza ahalbidetzeko irakasleen pentsamolde aldaketa eraldaketarako giltza izan direla ondorioztatu da.

*Hezkuntza berrikuntza, dimentsio eraldatzaileak, aniztasuna, elkarlana.*

La realidad de las escuelas es cada vez más diversa debido al flujo migratorio consecuencia de la globalización. Así, siendo la diversidad un tema que tiene gran interés actualmente, el objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es identificar y conocer las dimensiones transformadoras que podemos encontrar a la hora de gestionar las diferencias socioeconómicas, culturales y lingüísticas en la escuela. Para ello, se ha analizado el proceso que se llevó a cabo los años 2002 y 2003 para abrir la escuela Ramón Bajo al barrio, mediante la metodología comunicativa crítica. Esta metodología permite la construcción social del conocimiento a través de la comunicación y las entrevistas. Por último, concluyo que la escuela es un punto de convergencia de las familias en el trato de la diversidad, el Euskera se ha convertido en una herramienta de cohesión y el cambio del pensamiento de los profesores con respecto a facilitar la innovación han sido puntos clave para la transformación.

*Innovación escolar, dimensiones transformadoras, diversidad, trabajo en equipo*

As a consequence of the migratory flow that globalization brings about, the reality at schools is more diverse. The treatment of diversity generates great public interest, and the aim of this end-of-degree project is to identify and acknowledge the transformative dimensions found when managing socioeconomic, cultural and linguistic differences. Thus, some key points to build an inclusive school emerge. For that, the process that took place to open Ramón Bajo school was analysed by means of critic communication methodology. This allows the social construction of knowledge through communication and interviews. Finally, I conclude that families intersect with schools in the treatment of diversity, that Basque language has become a cohesion tool and also, that the change in teachers' mindset in terms of facilitating innovation have been cornerstone for such transformation.

*Educational innovations, transforming dimensions, diversity, teamwork*

## 1. SARRERA

Ikastetxe jakinetan kontzentrazio artifizialak edo ghettoak ematen direla sarritan entzun ohi dugu. Errealitate honen aurrean, hezkuntza ingurune hauetan aniztasunari erantzuteko beharrarekin batera, erronka sozial berriak sortu dira. Baina ba al dakigu aniztasuna aberastasun iturri izateko zein bide jorratu?

Aurreko praktikaldian Ramon Bajo eskolan hiru hilabetez egoteko aukera izan nuen, denbora asko izan ez bazen ere, barneko bizitza nolabait ezagutu nuen. Interesgarria iruditu zait aniztasunaren trataeran egunerokoan egiten duten lanari heltzea, izan ere, egun ematen ari den hezkuntza espazioetako kontzentrazioekin, gutxi dira Ramon Bajo eskolan bezala, desgetifikazio prozesu batean murgilduta daudenak. Hortaz, garrantzitsua iruditu zait aniztasunaren trataeran sortu daitezkeen indargunei erreparatzea.

Lan hau aurrera eramateko Ramon Bajo eskola komunitateko hainbat kideren laguntza ezinbestekoa izan dut. Hortaz, lanari ekin aurretik esker beroenak eman nahiko nizkieke lagundu didaten hiru kide hauei, haiekin elkarlanean aritzea plazer hutsa izan baita.

## 2. MARKO TEORIKOA

Migrazioa gizakiaren jaiotzatik bertatik gertatzen den fenomeno da, gizakiaren baitan eta izaeran dago mugikortasuna eta zenbaitetan leku batetik bestera joateko beharra. Gaur egun ere ukazina da migrazioen garrantzia, munduko populazioaren %3a bere jaioterria ez den beste lurralde batean bizi da (Moreno eta Aierdi, 2015).

Espainiar estatutik kanpo etorritako migrazio fluxuaren ondorioz Euskal Herriko aniztasun maila areagotu egin dela azaltzen du Barquin-ek (2018), migrazio fluxu honek, zuzenean eragin die ikastetxeei. Ikuspegi-ren arabera (2017), Euskadin 1998an 15.198 atzerritar zeuden erroldatuak, populazioaren % 1,3a. 2016an aldiz, EAEko populazioaren % 8,6a zen atzerritarra, 139.425 biztanle hain zuzen ere. Zenbaki hauek agerian uzten dute azken urteetan Euskal Autonomia Erkidegoak bizi izandako gorakada.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren (2016) txostenak azaltzen duenez, 2014-15 ikasturtean Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztien % 6,6 atzerritarrak ziren eta hauek ondorengo koadroan adierazten diren moduan banatzen ziren: eskolatutako atzerritar ikasleen % 66,4 ikastetxe publikoetan eta % 33,6 ikastetxe pribatu eta kontzertatuetan. Hizkuntza aukerari dagokionez, % 51,4 D ereduan eskolatuta zeuden, % 28 B ereduan eta % 19 A ereduan.

1. taula

2016an ikastetxe motaren arabera etorkin kopuruaren banaketa ehunekotan

IKASTETXE MOTA		HIZKUNTZA EREDUA	
<b>Sare publikoa</b>	% 66,4	<b>D eredua</b>	% 51,4
<b>Sare pribatu eta kontzertatua</b>	% 33,6	<b>B eredua</b>	% 28
		<b>A eredua</b>	% 19

## Eskola segregazioa

Pertsona migratzaileen seme-alaben gizarte-mugikortasuna eta integrazio-prozesua aztertzen den neurrian, migrazio-fenomenoak sortzen duen aniztasun sozialaren egituratzea aztertzen da (Fullaondo, 2017). Aniztasun kontzeptuak, Ainscow-ren arabera (2001), pertsonen artean dauden ezberdintasunei egiten die erreferentzia. Muntaner-ek (2000), aniztasuna ulertzeko bi ikuspegi ezberdintzen ditu: eskolarra eta soziala. Eskolarrak ikasleen artean, irakasleen artean eta eduki kurrikularren artean dagoen aniztasunean jartzen du arreta. Sozialak aldiz, aniztasunaren kontzeptua lau arrazoi ezberdinetan oinarritzen du. Arrazoi soziala, hezkuntza ezberdintasun sozialak, kulturalak, norbanakoak eragindakoak, etikoak, eta arrazoi psikopedagogikoak.

Aniztasun sozialaren egituratzean hainbat fenomeno sortzen dira, hala nola, bazterketa egoerak. Horren adibide dira, jatorri atzerritarra duten ikasleen eskolaratzean sortzen diren ikastetxe arteko desoreka egoerak. Fenomeno horri eskola segregazioa esaten zaio.

Vandenberghe-k (2003) adierazi moduan, eskola segregazioa talde minoritario jakin batzuk hezkuntza zentroen artean era desorekatuan banatzeari egiten dio erreferentzia (Vandenberghe, 2003, Ferrer-ekaipatua 2006, 42.or).

Eskola segregazioak zenbait faktoreri erantzuten die, horrenbestez, fenomeno bereziki konplexua dela esan daiteke. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako diagnostikoaren arabera (2018), atzerriko ikasleen etengabeko etorrerak, bizileku-kontzentrazioak, eskola-aukeraketan agertutako lehentasunak, eta bertako biztanleriaren “ihes-efektuak” eskola sistemaren gizarte-kohesioa murrizten duten desoreka-egoerak sortzen ditu. Halaber, hezkuntza eremutik kanpo badaude beste faktore batzuk desoreka honetan eragin zuzena dutenak: aniztasun sozioekonomiko eta kulturala, harrerako herrira heldutako unea, hizkuntza-aniztasuna eta jatorriko herrialdea, besteak beste (Alegre eta González, 2012).

Mailakatze egituretan oinarritzen diren hezkuntza desoreka hauek zuzenean baldintzatu egiten dituzte ikasleen ikasketa eta gizarteratze-prozesua (Fullaondo, 2017). Gauzak horrela, ikasleek eskolan dituzten aukerak eta eskola barruan edo eskolatik kanpo dituzten kultur arteko harremanak, erabat baldintzatzen dituzte eskola antolakuntzak eta ikastetxeak duen espazio fisiko eta sozialak (Carrasco, et al., 2009).

Gertakari honen aurrean, hezkuntza testuinguruan agerian geratu dira baztertutako klase sozialetako zein kultura gutxietako ikasleekiko bazterketa egoerak. Hezkuntzak egoera honi erantzuteko, eskola demokratikoaren eraikuntzarako neurriak hartu izan ditu, egitura eta antolakuntza berrikuntza desberdinetan oinarrituta, hala ere, gaur artean aurrera eraman diren neurriek, hala nola, aniztasuna kontrolatzeko aukeraketa prozesuek, desberdintze proposamenek, ikasle talde batzuen programa eta gela espezifikoek, ez dute aniztasuna hobekuntzarako aukera bezala aprobetxatzen utzi (Parrilla, 2002).

## **Kulturarteko hezkuntza**

Egoera honek, errespetuan eta aniztasunaren balioztatapenean oinarritzen den bestelako hezkuntza eredu baten beharra nabarmentzen du. Izan ere, eskoletako errealitatea gero eta heterogeneoagoa da eta etorkinak beste herrialde eta kultura batzuetatik datozen heinean, beste hizkuntza batzuk, beste ohitura batzuk, beste erlijio batzuk, gerturatzen dituzte eskoletara. Horrenbestez, kultura anitzeko proiektuak garatzea beharrezkoa da (Arratibel, 2002). Kultura anitzeko proiektuek jendarteko kide bakoitzari eta guztiei bideratua egongo den eredu bat proposatu behar dute. Horrek, hezkuntza esparru formalean zein informalean eragitea eskatuko du, hezkuntza komunitate guztia barne hartuz (Sáez, 2001). Hortaz, honek ezinbestean prozesu sozial bat eskatzen du, non pertsona guztiak ezberdintasunekin bizitzen ikasiko duten eta era berean ezberdintasunetatik ikasi ere (Ainscow, 2001).

Hauek horrela, Saenz-ek (2001) kultura anitzeko proiektu bat garatzerako orduan kontuan hartu beharreko zenbait alderdi gaineratzen ditu: kultura aniztasuna guztiontzako mesedegarria den ideia zabaltzea, ikasleei kulturarteko jendarte batean bizitzeko beharko dituzten jokabide, jarrera eta jakintza sozial, intelektual eta emozionalak helaraztea eta beste herrietako kultura eta ohiturak ezagutzeko gogoia piztea. Horrela, aniztasuna aberastasun bezala ikustea ahalbidetuko da. Aitzitik, hau ez da egingarria izango kultura gutxituak nagusia den kulturaren barneratzeko eta bertan egokitzeko politikak gaitzetsi ezean (Aguado, 1999).

Laburbilduz, beharrezkoa da kulturarteko gune berri bat sortzea, non giza eta gizarte desberdintasunen arteko errespetua bultzatuko den, pertsona guztien inklusioa bermatuz.

## **Eskola inklusiboa**

Aniztasun handiaren aurrean, ikastetxeek funtsezkoak diren erronkei, hezkuntzazkoari, sozialari, linguistikoari eta kulturalari erantzun behar izaten diete (Barquín, 2018). Egoera honi aurre egiteko, Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoak (2012) eskola inklusiboen sorreraren beharraz mintzo da. Inklusio kontzeptuak, gizarteak berak eta eskolak,



gizarteko partaide izanik, aniztasunaren aurrean nola erantzun behar duten horri egiten dio erreferentzia; praktikan, orain arteko hezkuntza-erantzunaren ardatza ikasleengan egon beharrean, hezkuntza komunitate osoan ardaztea eskatzen duelarik.

UNESCO-IBE-k (2008) hezkuntza inklusiboaren baitan, Ginebran, ospatu zen hezkuntzaren inguruko nazioarteko batzarrean, hezkuntza inklusiboa prozesu bezala ulertu behar dela adierazi zuen. Prozesu honen bitartez, ikasle guztien beharizan aniztasunari so egin eta erantzutea ahalbidetzen da. Horretarako, beharrezkoa da ikasleek ikasbidean, kultur ekintzetan edota komunitatean parte hartze handiagoa izatea; eta halaber, eskola eremu barruan edo eskolatik kanpo bazterketa jarrerak murriztea. Gainera, hezkuntza inklusiboa estrategia dinamikotzat hartu behar dela gaineratzen du, ikasleen aniztasunari modu ekintzaile batean erantzuteko eta horrekin batera, ikasle bakoitzaren ezberdintasunak arazo bezala ulertu beharrean, ikaskuntza aberasteko aukera moduan ulertuz.

UNESCO-k irudikatutako eskola inklusiboen eraikuntzarako, Parrilla-ren (2002) ustez, hainbat dira eskolek kontuan izan beharko dituzten ezaugarriak. Eskola inklusiboen eraikuntza ez da soilik hezkuntza eremura mugatzen, zeharkako ideia izan behar du, hau da, bizitzako esparru guztietara zabaldu behar da. Berdintasuna nabarmentzen du ezberdintasunen gainetik, pertsona guztien giza-eskubideen berdintasunetik abiatuz. Inklusioa aukera-berdintasunean oinarritutako balioetan sustraitua dagoen etika berri bat da, eta kultura eta hezkuntza aberastasuna ekartzen du. Azkenik, hezkuntza goitik behera aldatzea eskatzen du, hau da, berrikuntza prozesu sakon bat suposatzen du.

Azken ikerketek agertu duten moduan, inklusiboak diren hezkuntza eredu berritzaileak eraikitzeke derrigorrezkoa izango da prozesua familiekin batera garatzea (Simón, Barrios, 2019). Eskola demokratiko kulturantza eraikitzeke berrikuntza prozesuan familiek funtsezko ardura dutela adierazten dute autore hauek, izan ere, familien inplikazioaren bidez ikasleen ikaskuntzan eta parte hartzean eragina izan ditzaketan mugak edota

faktore laguntzaileak identifikatu daitezke. Hau beharrezkoa izango da irakaskuntza praktika egokia bermatzeko, ikasleen beharrezkoei erantzunez.

### **Hezkuntza berrikuntza**

Horrenbestez, aniztasunak eskatzen dituen behar berriek, eskola inklusibo baten eraikuntzaren beharra azaleratzen dute, komunitateko eragile guztiekin batera eraikia izan behar duen hezkuntza eredu berritzaile baten beharra hain zuzen ere. Gauzak horrela, garrantzitsua da berrikuntza pedagogikoa zertan datzan ulertzea. Barraza-ren hitzetan (2005), berrikuntza pedagogikoa prozesu bat da, curriculumean, eskola kudeaketan zein ikaskuntza irakaskuntza prozesuan, aukeraketa, antolaketa eta sormenezko erabilpena bere gain hartzen dituena. Arazo bati erantzunez ekingo zaionez prozesuari, erantzun integral bat eman behar zaio, horrek ikas komunitate osoan oihartzuna edukiz. Bestalde, erantzun integrala emateko beharrezkoa izango da pertsonen arteko harremanean oinarritzen den prozesu bat abian jartzea, sistematikotasun bati jarraitzen diona, epe luzerako aldaketa helburu izanik, hobekuntza bat suposatuz.

Hala ere, egon badaude hezkuntza berrikuntza aurrera eramateko garaian sortzen diren erresistentzia batzuk, prozesua zaildu dezaketenak; hala nola, irakasleek eta eskola komunitateko partaideek jarritako erresistentziak, irakasle eta ikastetxe batzuen aldaketarekiko beldurra, lan moduetan indibidualismoa, lankidetzaren oztopatuz, aldaketa sustatzen duten lidergoen gabezia, aldaketarako ahaleginen aitorpen eza, denbora murrizta, baliabide eta babes instituzional falta, edota formakuntzarik ez izatea (Fernandez, 2005). Horrenbestez, honako hauek dira ikastetxe batzuek berrikuntza prozesua abiarazteko gaintitu beharreko erronkak. Honekin batera, autore honek berrikuntza errazten edo laguntzen duten faktoreak identifikatzen ditu:

- Lan egiteko moduekin bat ez egitea, aldaketarako grina piztuz
- Denboraz baliatzea

- Baliabideak eskuratzeko aukera izatea: giza baliabideak, baliabide materialak, ekonomikoak, teknologikoak
- Ezagutzak eta estrategiak eraikitzeke formakuntza izatea
- Lanaren aitortzea jasotzea
- Faktore motibatzaileak egotea, ikas komunitate osoaren parte hartzea, konpromisoa eta lidergotza besteak beste.

Marko teorikoan, aniztasunaz, inklusioaz eta berrikuntzaz hitz egin da, baina kontzeptu hauek guztiak egingarriak eta guztientzako izan daitezten, halaberrezkoa izango da ikastetxeko familia guztien parte hartzea ematea. Gainera, berrikuntza prozesu bat abian jartzeak helburu aman komuna hizpide izatea eskatuko du, non eragile guztiak horren inguruan elkarlanean arituko diren, hortaz, beharrezkoa izango da familiekin batera berrikuntza prozesua eraikitzea, euren beharrei erantzunez, helburu bateratu baten bidean (Romagnoli, Gallargo, 2018). Izango dituzten zailtasunak direla eta, interes berezia izango du familia etorkinen parte hartzea sustatzen duten dinamikak garatzea. Izan ere, familia etorkinek helarazitako informazioaren bidez eskolako antolakuntza eta metodologia euren beharretara moldatzea ahalbidetuko da. Modu horretan, familia horiek kultura berriarekin harremantzeko aukera izango dute, inklusioan lagunduz. Horrela izan ezean, Meirieu-k (2004) azaltzen duenez, eskola homogeneitatea bideratzerakoan eskola porrota baino ez da eskuratuko, eskola bera, ikasteko eta pentsatzeko modu desberdina eta ikasle eta familia anitz horien arteko elkarrekintzarako parada uzten ez duen gunea bihurtuz (Leiva eta Escarbajal, 2011).

Era berean, Jordán-en arabera (2009) irakasleek funtsezko zeregina dute familia etorkinen parte hartze prozesuan, eskolaren eta familien arteko harremana indartuz, familia horiek ikastetxera gerturatuz eta gurasoen eskola zein giza inklusioa sustatuz.

### **3. LANAREN HELBURUAK**

Lan honen xedea, hezkuntza berrikuntza prozesu bat abian jartzen denean, aniztasunari trataera egoki bat ematea errazten duten faktoreak ezagutzea eta identifikatzea da. Helburua lortze aldera, Gasteizko alde zaharreko Ramon Bajo auzo-eskola hartu da abiapuntutzat. Horrela, 2002-2003 ikasturtean kultur aniztasuna kudeatzeko ekin zioten prozesua aztertu nahi izan da.

### **4. METODOLOGIA KOMUNIKATIBO KRITIKOA**

Lan hau aurrera eramateko metodologia komunikatibo kritikoa erabili da (Gómez-González eta Díaz-Palomar, 2009). Honek aukera eman du berrikuntza prozesuan parte hartu duten norbanakoen eskutik, esperientziak eta jakintzak partekatzeko eta horrela, eskola komunitatean emandako aldaketa erraztu duten faktoreez jabetzeko. Gómez-González eta Díaz-Palomar-ek (2009) adierazten dute, metodologia komunikatibo kritikoa pertsonen arteko interakzioaren bidez eraikitako errealitate soziala duela oinarri. Ezagutzaren sortzailea partaideen eta ikertzaileen arteko berdintasunean oinarritutako elkarrizketa da. Horretarako parte hartzaile guztien ahotsak barne hartzen dira, jakintza eta ikuspuntu anitzak barne hartuz. Hortaz, metodologia honek, ezagutza zientifikoa sortzen du adituen eta aditu ez direnen ahots guztiak balioztatzearen bidez. Bide horretan, ahotsen balioztatzea ikuspuntu ezberdinak aurrez aurre jartzean erabilitako argudioetan oinarritzen da, edonolako hierarkiak eta botere harremanak alde batera utziz eta pertsonen maila akademiko zein sozialari erreparatu gabe. Hau da, argudioak zuzentasunaren arabera balioztatzen dira. Horrela “adituaren” irudia desagertzen da, elkarrizketarako espazio horizontala bermatuz.

Aurretik aipatutakoarekin bat, beharrezkoa izango da baliozko asmoz egindako partaidetza egotea. Baliozko asmoa, Habermas-en (1999a, 1999b) hitzetan, argudioetan oinarritutako partaidetza ekarpenak egitea da.

## Informazioa jasotzeko teknikak

Talde eztabaida komunikatiboa informazioa bildu eta usteak antzemateko baliatzen den teknika da. Taldean egiteak, prozesu emergente baten bidez, azterketa gai diren inguruko ikuspuntu, iritzi eta ideia desberdinak aurrez aurre plazaratzea du helburu, informazioa eskuratzeko asmoz. Behin informazioa bilduta, beharrezkoa izango da elkarrizketaren interpretazioa ikertzaileek eta parte hartzaileek batera burutzea, elkarlanean (Gomez eta Cejudo, 2007).

Gradu amaierako ikerlan hau abian jartzeko asmoz, aurrera eramandako talde eztabaida komunikatiboa hainbat fasetan gauzatu da eta horretarako, Coffey eta Atkinson-en (2003) lanerako gidaliburua jarraitu da. Ikerketa lau eginbeharretan banatu da:

- Galderak erabaki
- Datuak bildu
- Datuak aztertu
- Informea idatzi
- Informea partaideekin berrikusi amaierako informea osatzeko

### *Datuak biltzeko teknika “focus group”*

Elkarrizketako datuak biltzeko asmoz, Jiménez, López eta Manrique-k (2015) azaltzen duten teknika kualitatiboa erabili da, “Focus Group” edo “Grupo de Discusión Comunicativo” alegia. Datu bilketarako teknika honek, ikerketako partaideen berdinen arteko elkarrizketa eskatzen du ezinbestean. Teknika honi jarraituz, aukeratutako parte hartzaile taldea ezagunak diren partaideek osatu dute eta talde eztabaida haietzako ezaguna den leku batean burutu da. Berdinen arteko elkarrizketan, ikertzaileak bere ezagutzak plazaratu eta ezagutza horiek partekatu ditu, gainontzeko kideek bezala. Horrez gain, eztabaidako partaideei gidoi edo asmoen zerrenda bat eta lanaren helburuaren nondik norakoak adierazi zaizkie, horrela gaiak ezagunak eta malguak izanik.

Izan ere, proposatutako gaiak irekiak dira, aurretik erreparatu ez zaien beste gai batzuetara salto egiteko aukera ere emanez.

*Talde eztabaida komunikatiboaren erregistroa*

Eztabaidaren erregistroa ahots grabazioaren bidez burutu da. Talde eztabaida gazteleraz egin da, partaide guztiek parte hartu ahal izateko, beraz, transkripzioak hitzez hitz egin dira gazteleraz. Ondoren, adierazitakoak euskaratu dira.

*Talde eztabaida komunikatiboko parte-hartzaileak*

Talde eztabaida komunikatiboa Gasteizko Ramon Bajo auzo eskolan aurrera eramana da. Borg eta Gall-ek (1983 in Bisquerra 2000) aurkeztutako jarraibideei erreparatuz, partaideen baliozkotasuna ziurtatu da, laginaren aukeraketa ez probabilitikoa eginez. Lanerako xedea kontuan hartuta, zenbait gai ezagutu dira eta honekin batera gai horien inguruan jarduteko parte hartzaile interesgarrienak hautatu dira. Bestalde, autore hauek adierazten duten moduan, partaide bakoitzak eskolan rol desberdin bat duela bermatu da, ikuspuntu anitzak bilatzeko asmoz. Parte hartzaileen ezaugarri nagusiak ezagutzeko ikusi 2. Taula (12.or).

2. taula. *Parte hartzaileen ezaugarri nagusiak.*

Kodea	Generoa	Adina	Esperientzia eskolan	Rolak eskolan	Egungo egoera
P	Emakumea	62 urte	28 urte	Hezkuntza Bereziko irakaslea, Ikasketa Burua, Kulturarteko koordinatzailea, Zuzendaria eta Aholkularia	Erretiratu
A	Emakumea	55 urte	17 urte	Tutorea, Ikasketa Burua, Hipi eta idazkaria	Eskolako Idazkaria
F	Emakumea	46 urte	12 urte	AMPA eta eskola kontseiluko guraso migratua	Langilea

*Talde eztabaida komunikatiboa prestatzeko eta gauzatzeko gakoak*

Talde eztabaida burutu baino lehen hau antolatu eta prestatu da, gertaerei aurrea hartuz eta egoera ezberdinak aurreikusiz Karrera-k (2008) dioen moduan. Horretarako gai zabalak proposatu dira, partaideei beharrezko informazioa eman zaie, entzuteko jarrera erakutsi da eta epaiketak saihestu dira.

Bestalde, talde eztabaida prestatzeko ekintza baino lehen eta ostean hainbat urrats eman dira elkarrizketa berari bide emateko eta horrela informazio gehien eskuratzeko asmotan. Honako hauek izan dira eman diren pausuak (Gómez et al., 2006): eztabaida aurretik, Ramon Bajo eskolara bisita egin da, egoera ezagutu da eta horrekin batera zuzendari eta ikasketa buruari ikerketaren helburua jakinarazi zaie, haien iritzia jakiteko. Bestalde, zenbait data posible luzatu zaizkie eta garai hartan eskolako kide izan ziren pertsonengatik galdetu zaie, kontaktua eskatuz, hitz orduaren nondik norakoen zertzelada batzuekin batera. Eztabaida egunari dagokionez, lehenik eta behin partaideei parte hartzea eskertu zaie eta modu labur batean lanaren helburua eta metodologia azaldu zaizkie, honekin batera, grabaketaren berri eman zaie berriz ere. Azkenik, eztabaidari ekin zaio konfiantzazko giroa bilatuz.

### **Informazioa aztertzekeo teknikak**


Informazioa aztertzekeo, lehenik eta behin talde eztabaidak transkribatu eta euskaratu dira. Ondoren, parte hartzaileen testigantzak kategorizatu eta kodifikatu dira, dimentsio eraldatzaileen arabera.

Behin transkripzioa kategorizatuta, jasotako informazioa aztertu eta alderatu da, informazio aberasgarriena eta esanguratsuena erabiltzeko. Honako hau ez da egin informazioa triangulatzeko asmoz (Angera, 2000).

Bestalde, azken urteetan, ikerketa kuantitatiboek kritika asko jaso izan dituzte balidazio eta fiabilitate irizpideak ezarri nahi izan zaizkielako. Aldiz, Lather-ek, St Pierre-ek (2003) edo Mazzai-k (2013) azaltzen duten moduan, ikerketa postkualitatibo hauek errealitatea

ezagutzeko baliagarriak diren arren, ezin dira orokortzeko asmoarekin egin eta ezin zaizkie Angerak azaldutako fiabilitate, transferentzia eta balidade ezaugarriak atxiki.

Beraz, lan honen informazioa aztertzeko, elkarrizketatuek esandakoak elkarren artean alderatu dira informazioa hautatzeko asmoz. Ondoren partaideek esandakoa ondo adierazi dela ziurtatzeko testua parte hartzaileei helarazi zaie informazioa ondo azaldu dela egiazta zezaten.



1. Irudia. Metodologia komunikatibo kritikoaren eskema grafikoa. Lan honen egileak egin.

## 5. EMAITZEN AZTERKETA

Atal honetan, ikerketa komunikatibo kritikoaren bidez eskuratutako emaitzak adierazten dira. Emaitza hauetan Ramon Bajoko aniztasun sozio-ekonomiko, kultural eta linguistikoa kudeatzeko berrikuntza prozesu bat abiatzen denean, bilakaera hori errazten laguntzen duten faktoreak azaltzen dira, prozesuaren dimentsio eraldatzaileak hain zuzen ere. Hiru dimentsio eraldatzaile identifikatu dira.



**DE1. Euskara hizkuntza kohesiorako tresna erabiltzea, ikasle guztiei euskaraz bizitzeko aukera emanez, desabantaila sozioekonomiko, kulturalak gainditzen laguntzen du.**

Ramon Bajo eskolako ikur nagusietako bat euskara hizkuntza da. Eskolak beti egin du eredu bakarrekoaren alde, euskararen alde alegia. Horrela, ikastetxeak euskararekin hartutako konpromisoa sendoa da. Euskara hizkuntza denen kohesiorako tresna gisa erabiltzen dute, ikasle guztiei euskaraz ikasteko parada emanez eta jendartean euskaraz bizitzeko aukera zabalduz. Hau posible izateko, eta ikastetxea zonalde erdaldun batean errotuta dagoela kontuan hartuta, euskararen erabileraren sustapenari, bai eskolan eta bai eskolatik kanpo ere, egunerokotasunean, garrantzi handia ematen diote, baita euskal kulturaren aldeko jardunari ere.

Ramon Bajo auzo eskola 2002-2003 ikasturtean egoera gogorrean zegoen. Eskola A eredukoa zen garai hartan: 85 ikasle baino ez zituen, denak ijito familien eta gehien bat etorkinen seme-alabak ziren. Horrela, eskola gutxiengoan kontzentrazioa bihurtu zen, ijito ez ziren auzoko familia autoktonoek euren seme alabentzat aukeratzen ez zutena. *“Ramon Bajoko % 90a atzerritarra zen eta orduan auzoko gurasoek, euskaldunek, beldurra izan zuten haien umeak eskolan matrikulatzeko orduan”* (F\_00:08:30). 2004-2005 ikasturtean guraso elkartearen proposamenez eskolak eredu linguistikoa aldatu zuen, euskararekiko apustu irmoa eginez, A eredutik D eredura igaroz. Eskolak euskararekiko hartutako konpromisoa sendoa izan bazen ere, auzoko familiek apustu oso handia egin zuten euren seme alaben hizkuntza aukeran. *“Jende guztiak egin zuen D ereduaren aldeko apustua, jende guztiak, hemengoak ziren auzokideak eta kanpotik etorritako auzokideak”* (A\_00:11:19). Eredu linguistikoaren aldaketarekin matrikulatuta zeuden ikasleak eskolan jarraitzeaz gain, auzoko beste familia batzuk ere sartu ziren, denentzako eskola bilakatuz eta auzora bete betean zabalduz. *“Eskola, auzo eskola bihurtzen hasi zen, gure auzokoa eta guztientzako irekia”* (A\_00:11:17).

Eskolaren helburu nagusietako bat ume guztiek D ereduan ikastea zen, eredu

bakarreko eskola izanik. Hortaz, euskara denen kohesiorako tresna bezala ulertu izan dute beti, eta ez bi ikasle mota sortzeko modu gisa. *“Ez zihoazen bide batetik A eredu eta bestetik D eredu, hori ez zen inolaz ere gure intentzioa, hori ez genuen inork nahi, ez familiek ezta irakasleek ere, haurrak eredu linguistikoaren arabera banatuta ikustea, kontrakoa, elkartu beharra dago”* (A\_00:05:00). Desabantaila sozioekonomiko eta kulturalean dauden umeak izan ditu eta baditu eskolak. Honen aurrean, eskolako lehentasun bat izan zen ikasle guztiek euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko aukera izatea, jendartean eskubide eta aukera guztiekin bizi zitezen.

Aniztasun handiko eskola batek eguneroko beharrei egin behar izaten die aurre. Nola egin hemengo hizkuntzak ezagutzen ez dituzten familiekin komunikatzeko? Nola lortu eskola inklusibo eleanitz bat? Ramon Bajo eskolan, hizkuntza irakaskuntza modu integral batean gauzatzen zen ikasgela arruntean, hizkuntza berria ikasten ari ziren ikasleak hiztun trebeekin aritzen baitziren jardunean. Bestalde, hasieratik ikasleen ama hizkuntzari garrantzia eman zioten, hizkuntza berria ikastean ikasleek lehen hizkuntza gal ez zezaten. Ama hizkuntza mantendu eta indartzeko asmoz, hizkuntza arabiarreko klaseak eskaintzen zituen eskolak. *“Klaseak arabiar hizkuntza emateko ziren, beste modu batean alfabetatu ezingo ziren haurrentzat eta beraz ezingo zuten arabiar hizkuntza ondo ikasi”* (A\_00:32:21). Lehen hizkuntza lantzen jarraitzeak lagundu egiten du haurraren garapen kognitibo eta afektiboan eta baita bigarren hizkuntzaren jabekuntzan ere. *“Etxean bere ama hizkuntzan hitz egin behar dute, aberastu ama hizkuntzan, ama hizkuntza menperatzen duzun heinean errazagoa izango baita beste hizkuntza batzuk ikastea”* (A\_00:35:31).

Harrerako herrira heldutako familiek askotan beldurra eta ezjakintasuna izaten dituzte, hainbat gauzengatik, horien artean hizkuntza ez ezagutzeagatik. *“Nik, adibidez etorri nintzenean beldurra sentitu nuen, benetan esaten dizut”* (F\_00:13:30). Eskola, komunitate bat zela ulertzen zuten, hau da, ez zen soilik haurrentzako eskola bat, baizik eta auzoko familia guztientzat, gurasoen beharrezanez ere erantzuten ziena. Beraz, familiek hizkuntza ikas zezaten formakuntza jasotzen zuten. *“Gure haurrak klasean uzten genituen eta guk ere gaztelaniazko beste klase bat jasotzen genuen. Orduan, ez zen bakarrik umeentzako eskola bat,*

*gurasoak aldi berean hezteko ere bazen*" (F\_00:06:15). Hizkuntzaz gain, beste formakuntza batzuk ere eskaintzen zitzaizkien gurasoei, informatika klaseak eta aerobic saioak besteak beste. Horrenbestez eskola familientzako ireki zen bete betean.

Eskolako organoetan, klaustroan, eskola kontseiluan eta guraso elkartean jatorri desberdinetako gurasoen komunikazioa bideratzeko asmoz, familia eta irakasleen hartu emana funtsezkoa izan zen. Horrela, elkarri laguntza eskatzen zioten itzultzaile lanak egiteko eta komunikazioa argia zela ziurtatzeko, komunikazio argiari garrantzi handia ematen baitzioten. *"Ikasle berri bat eskolara heltzen zenean, zuzendariak gurasoekin harremanetan jartzeko, gu bilatzen gintuen"* (F\_1:03:06). Euren esanetan, modu bat zen familiak eskolaren parte garrantzitsu sentitzeko eta eskolara hurbiltzeko. Bestetik, familientzako oharren komunikazioa bermatzeko, oharrak euskaraz, erdaraz eta arabiarrez idazten zituzten. Irakasleek aitortzen dute zalantza asko izan zituztela oharren hizkuntza aukeraketan, izan ere, hizkuntza desberdin asko zeuden eskolan. Agerian geratu denez, honek guztiak, ahalegin eta denbora gehiago eskatzen du, hau da, aniztasuna handitu ahala, handiago izaten da ahalegina. *"Klasea ematea ikasgelan zegoen aniztasun guztia gidatzen oso zaila zen, oso nekeza"* (P\_00:26:06).

## **DE2. Familiek eskola antolakuntzan parte hartzeak eta eskola familia guztien elkargunea izateak, komunitate sentimendua indartzen du.**

Eskolaren ezaugarri nagusietako bat komunitate indartsua izatea da, familiek, auzoak eta eskolak bat egiten dutena. Horrenbestez, familien parte hartzean eta familia eta eskolaren arteko harremana sendotzean beti jarri izan ditu indarrak Ramon Bajo ikastetxeak. Auzoarekin elkarlanean familia eta ikasleentzat hamaika ekintza eskaintzen ditu, eskolako instalakuntzetan eta baita auzoko gune publikoetan ere. Beraz, familia askorentzako elkargunea bihurtu da eskola, ekintza anitz praktikatzeko eta baita haurrekin jolasean ibiltzeko konfiantzazko gunea hain zuzen ere.

Eskolako familien, irakasleen eta haurren bizikidetzan sare indartsuak eraikitzea elkarlanean arituz, eskolari komunitate izaera ematen dio. *"Noski, guk eskola komunitate bat*

*balitz bezala ulertzen genuen, eta uste dut garrantzia handia eman geniola bizikidetza zenari, gurasoen, irakasleen eta haurren arteko elkarbizitzari” (P\_00:32:30).*

Ramon Bajo eskola zabaldu zenetik, 1980an, ibilbide guztian zehar hainbat garai izan ditu. Arestian adierazi moduan, 2002. urtean eskolako egoera ez zen batere ona, eskola ghetto bihurturik, auzoan ez zegoen batere ondo ikusia eta ondorioz, garai hartako irakasleen esanetan, eskola geroz eta gehiago ixten joan zen, auzoko familia askok ez zuten ezagutu ere egiten. *“Auzoan nik uste ez zela ondo ikusten, ez zen begi onez ikusten eskola, beraz, eskolak egin zuena ixtea izan zen, irekitzea orde” (P\_00:15:30). “Oso gaizki ikusia eta gainera desagertua, o sea justu kontrakoa” (A\_00:30:15).*

Honen aurrean auzoko herritar ziren eta eskolan lan egiten zuten irakasleek, eskolak auzoaren beharra zuela ulertzen zuten, auzo-eskola izan behar zuela sinesten zuten baita auzoko sarean erabat integratuta egon behar zela. Horrela, eskolak kalera ateratzea erabaki zuen, auzoak nolabait errekonozitu zezan eta aitortza bat eman ziezaion. *“Ezagutarazi behar zen, eta normalizatu, normalizatu zentzu honetan: hemen gauden pertsonak gara, hemen bizi gara, auzoan gaude eta ikusi behar gaituzte” (P\_00:17:37).* Errekonozimendua ahalbidetzeko, eskola auzoko mugimendu eta ekintzetan parte hartzen hasi zen, ezagutarazi eta normalizatzeko asmotan. *“Bai, auzokoak gara, eskolakoak gara, euskaldunak gara eta hemen gaude esatea zen” (A\_00:18:43). “Baina gauza guztietan parte hartuko dugu, zapiarekin, zapirik gabe...” (F\_00:18:50).* Argi zuten hezkuntza-komunitatea indartu behar zela, familien parte hartze integrala sustatu behar zela, eskolarekiko atxikimendua bultzatuz, elkarlana sendotuz eta identitate-sentimendua indartuz.

Errekonozimendu lan horretan, eskola kalera ateratzeaz aparte, beste alderdi garrantzitsu bat ere eman zen: “Agencia de rehabilitación” delakoak Gasteizko alde zaharra luxuzko auzoa izateko proiektua kaleratu zuen. Proposamen hark auzoa mugiarazi zuen eta inguruko familiak mobilizatu ziren auzoaren babesean. *“Gogoratzen dut manifestazio bat zegoela eta guztiak batera joaten ginela, irakasleak, haurrak, gurasoak” (F\_00:59:15).* Gainera, kontuan hartu beharreko beste faktore bat eskolaren kokapena

izan zen, izan ere, Gasteizko alde zaharra beti izan da mugimendu sozialen elkargune eta sorleku, horrek biztanleen kontzientziazioan laguntzeaz gain, borrokarako grina gehiago piztea eragin zuen. Presio egoera horren aurrean, eskolak funtzio zinez garrantzitsua izan zuen, hau da, eskola izan zen auzoko kohesio soziala lortu zuena. *"Jendea asko mobilizatu zen eta auzoan kohesio soziala lortzen ari zen instituzioetako bat eskola izan zen, eskolan ematen ari zen kohesio soziala"* (P\_00:56:17). Giro horretan, familiek apustu handia egin zuten eskolaren alde, hau babestuz. Halaber, gertaerak asko elkartu zituen eskola eta familiak. *"Elkartzen duten gauza asko dira!"* (P\_1:00:28). Auzoaren bihotza eskola zela ulertu zuten, familiek, eskolak eta auzoak bat egiten zutena. Gauzak horrela, ikastetxeak denentzako eskola baterako bidea hartu zuen.

Auzoan zeuden baliabide eta zerbitzuekin elkarlanean eta kontaktuan egoteak ere komunitate sentimendua eman zion eskolari. Elkarlanean zeuden auzoko gizarte langileekin, kale hezitzaileekin, Hala Bedi irrati librearekin, liburutegiarekin, Goian egitasmo komunitario hezitzailearekin etab. *"Esaten genion elkarri: auzoan kale hezitzaileak daude eta hau eta beste. Bueno ba, helduko gara denok adostasun batera eta elkarrekin lan egingo dugu"* (P\_01:16:53). Auzoarekin harremana gaur egun ere asko lantzen da. *"Auzoarekin kontaktua mantentzen da oraindik ere, haurrek edonolako lanen bat egin behar badute, auzora ateratzen dira eta dendetan, tabernetan galdetzen dute, o sea auzoko merkatariekin harremana izaten jarraitzen dugu"* (A\_00:20:09).

Agerian geratu denez, familien parte hartzea eta familien arteko harremana beti zaindu izan ditu eskolak eta hauen partaidetza eskolako organoetan oso inportantea izan da, izan ere, ezin ahaztu daiteke guraso elkartearen eta eskola kontseiluaren proposamenez hizkuntza eredu aldatu zela. Guraso elkartearen jardunak berebiziko garrantzia izan zuen familien eskolarako hurbilpenean, arazoei helduz eta irtenbideak bilatuz, baita hamaika ekimen abian jarriz ere: gurasoentzako formakuntzak, eskolaz kanpoko ekintzak, elkarguneak... *"Agertzen ziren arazoengatik hitz egiten genuen eta irtenbideak bilatzen*

genituen” (F\_00:14:44). *”Gauza asko egin izan ditugu, horietako bat gurasoentzako klaseak dira”* (F\_00:15:05). Jarduera horien bidez, familien arteko harremanak asko estutu ziren.

Esan beharra dago, foro “formaletan” gutxi izan zirela etorkin edo ijito jatorrikoak zirenak. Hala ere, familiekin lan handia egitearekin batera, talde horietan ere jatorri desberdineko gurasoak biltzea eta hauek taldea gidatzea lortu zen. *”Bai, ni presidente bezala egon nintzen”* (F\_00:12:19). Bestelako parte hartze “informalean” familien parte hartzeko prestutasuna beti izan da oso adierazgarria. Parte hartze informal horretan asko nabarmentzen da familiek egindako esfortzua eta lana. Eskola ordu ostean familiak haurrekin batera eskolan geratzen ziren jolasean eta modu horretan eskola familia guztien elkargune bihurtu zen. *”Askariak prestatzen genituen patioan, ate nagusiaren parean egiten genuen dena, denok batera jaten genuen, guraso guztiak, arabiarak, espagnolak, euskaldunak, jolasten genuen, hitz egiten genuen, gure artean ez zegoen ezberdintasunik”* (F\_00:53:51). Konfiantza giroa sortu zen nagusiki, eskola bera etorri berriak ziren familientzat, bizi zuten estutasunen gainetik, babesgune eta arnas gune bihurturik. *”Es como el pescado para respirar yo tengo que entrar en el agua, yo tengo que venir aquí para respirar”* (F\_00:14:15).

Gainera, irakasleen partetik eman zen gurasoekiko konpromisoa beharrezkoa izan zen. Irakasleek tutoretza asko burutzen zituzten guraso eta ikasleekin, sistematikotasun batekin. *”Tutoretzak asko lantzen ziren haurrekin batera”* (P\_00:38:09). Tutoretzen bidez, ikaslearen jarraipena egiteaz gain, familiak ezagutzen zituzten, familien egoera eta profil sozioekonomikoak, kulturalak eta linguistikoak. Euren esanetan, familien egoeren berri izatea beharrezkoa da haurra ulertzeko. *”Hona heldu diren umeak eta familia guztiak, ni adibidez lehenengoa, arazo handiak bizi izan ditugu, jende guztiak arazoak zituen, orduan hurrek nola egingo diete aurre gauza hauei?”* (F\_00:41:56).

Ildo beretik, eskola komunitate indartsu bat izatearen arrazoietakoa bat, irakasleak eta familiak helburuak partekatzeko eta elkarlanean aritzeko gai izan zirela da. *”Batera lan egiten genuen, ahal ziren gauza guztiekin”* (P\_01:17:11). Elkarlaneko jardun horrek elkartasun sentimendua bultzatu zuen. *”Benetako familia bat da, familia, familia, familia”* (F\_00:14:09).

**DE3. Irakasleen pentsamolde aldaketak, ikasleen aukeretan sinesteak, eskolako arauetikiko malgutasuna agertzeak eta ekintzaile jarrera izateak berrikuntza prozesua ahalbidetzen du.**

